



UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK

2005-06 ikasturtea


BIOLOGIA

Bi aukeretatik bat hautatu, eta erantzun itzazu dituen bi zatietako aztergaiak.

A AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Organismo autotrofoek berezkoa duten prozesu metaboliko bat ikusten da, laburtuta, irudiaren eskeman.



Aztergaiak

a. Zer prozesuz ari gara?. Zer organulutan gertatzen da? Aipatu prozesu hori burutzeko gai den organismoen bat. (1,25 puntu)

b. Azaldu zer gertatzen den eskemako 1. eta 2. faseetan. (1,25 puntu)

c. Zein da uraren zeregina prozesu honetan? Zer bihurtzen da? (1,25 puntu)

d. Aipatu kloroplastoen eta mitokondrioen arteko hiru antzekotasun eta eman haien berri, laburki. (1,25 puntu)





2. ZATIA (5 puntu)

AZTERGAIAK


- a. Azaldu zelula prokariotikoen eta eukariotikoen arteko hiru ezberdintasun egiturazko, eta hiru ezberdintasun funtzional. **(1,25 puntu)**
- b. Deskribatu proteinek izaki bizidunengan betetzen dituzten bost funtzio. **(1,25 puntu)**
- c. Azaldu errekonbinazio genetiko kontzeptua. Zer-nolako zeluletan gertatzen da eta zatiketa zelularren zein alditan? Mintzatu, arrazoiak emanez, bere garrantzia biologikoaz. **(1,25 puntu)**
- d. Definitu immunitateari buruzko termino hauek: Sortzetikoa, hartutakoa, aktiboa, pasiboa, humorezkoa eta zelularra **(1,25 puntu)**



B AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Behean daukazun grafikoak ikusirik, erantzun aztergai hauei:



Aztergaiak

- Zer prozesu irudikatzen da A grafikoan? Azaldu zertan oinarritzen zaren erantzuna emateko, eta adierazi, arrazoituz, zer gertatzen zaion DNARI prozesuan zehar. (1,25 puntu)
- Zer prozesu irudikatzen da B grafikoan? Azaldu zertan oinarritzen zaren erantzuna emateko, eta adierazi, arrazoituz, zer gertatzen zaion DNARI prozesuan zehar. (1,25 puntu)
- Aztertu eta deskriba itzazu, laburki, kromosomek mitosiaren faseetan zehar jasaten dituzten eraldaketak (1,25 puntu).
- Jarri elkarren arteko harremanetan kiasma, errekonbinazioa eta gaingurutzamendua. Arrazoitu erantzuna. (1,25 puntu)





Universidad Pública
de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak

- a. Deskribatu ur-molekularen egitura. Aipatu uraren lau ezaugarri fisiko-kimiko eta erlazionatu beren funtzio biologikoekin. (1,25 puntu)
- b. Aipatu erretikulu endoplasmatico leunaren eta erretikulu endoplasmatico zimurraren arteko ezberdintasunak eta antzekotasunak, egiturari, funtzioari eta lokalizazioari dagokienez. (1,25 puntu)
- c. Mitokondrioko kate elektroi-garraiatzailea inhibitzen bada, nola eragiten zaie garraio aktiboari eta garraio pasiboari? Eta temperatura igotzen bada? Arrazoiu erantzuna. (1,25 puntu)
- d. Deskribatu defentsa organikorako hiru mekanismo ez-berariazko, infekzioei aurre egiteko (1,25 puntu)

